

## **GELAKO GURASO ORDEZKARIEN TALDEA**

### **PROPOSAMENA**

Gelako gurasoen ordezkartzaren bidez, Ikastolak beste urrats bat egin nahi du zuen seme-alaben hezkuntzan gurasoek duzuen partaidetzarekin lotuta.

Garrantziko urratsa da; izan ere, Ikastolaren bizitzan gurasoen inplikazioa eta parte hartzea bultzatu eta areagotu nahi dira.

### **IZAERA**

Informazio trukerako eta kontsultarako organoa izateaz gain, ekimenerako talde sustatzailea ere bada. Alderdi pedagogikoko arduradunekin eta bestelako guraso-organoekin harremana izango du.

### **HELBURUA**

Gurasoen parte-hartze egituratua sustatzea, Ikastolako egunerokoan parte hartzea ahalbideratuz eta sustatuz, hezkuntza-komunitatea indartzeko.

### **AUKERAKETA**

Gela bakoitzeko bi ordezkari izendatuko dira, bata bestearen ordezkoa. Borondatezko parte hartzea eskatuko da, motibazioa, praktikotasuna eta inplikazio maila bermatu eta sustatzeko. Inor ez bada borondatez aurkezten, gelako gurasoek erabakiko dute (zozketaz ala bozkaz) urteko ordezkariak nortzuk izango diren.

### **FUNTZIOAK**

- Zurriola Ikastolaren oinarrizko izaera lantzen eta zabaltzen lagundu (euskara, kooperatibismoa, auzo-lana, parte-hartzea).
- Zurriola Ikastolaren xedea eta helburuak zabaltzen lagundu.
- Ikastolaren bizitzan gurasoen parte hartzea bultzatu, Olarrizuk antolatzen dituen ekimenetan (Danborrada, Ikastolaren eguna, Zurrimendi, San Tomaseko postua, guraso eskolak...) eta bestelakoetan (Gabon eguna, Euskararen eguna, Euskaraldia, Korrika, Inauteri eta Kaldereroetako auzoetako konpartsak...).
- Ikastola proiektu hezitzaile zabal bezala ulertuz (dozentzia formalaz gain) hainbat ekimen sustatzea.
- Informazio-igorle izan bi norabideetan:
  - Gelako gurasoen egitasmo, proposamen eta kezka jaso eta topaketa-bileratan partekatu.
  - Ikastolako organo ezberdinetako kideek helarazitako ez-ohiko informazioa gelako gurasoei zabaldu.
- Gurasoen arteko komunikazio eraginkorra bultzatu.
- Dagokion ikasmilan egiten diren ekintzen berri izan (irteerak, txangoak...), eta, behar izanez gero, gurasoen artean laguntzaileak lortu.

Hori guztia Zurriola Ikastolako Ikaslearen Irteera Profilaren ezaugarriak garatze aldera bideratuta dago.

## **GRUPO DE PADRES Y MADRES REPRESENTANTES DE CLASE**

### **PROPUESTA:**

A través de la representación de padres y madres de clase, la Ikastola quiere dar un paso más en la participación de estos en la educación de sus hijos e hijas.

Se trata de un paso importante, ya que se quiere impulsar e incrementar la implicación y la participación de los padres y madres en la vida de la Ikastola.

### **RAZÓN DE SER**

Además de ser un órgano de intercambio de información y de consulta, es un grupo para promover la participación. Tendrá relación con los responsables pedagógicos y con otros órganos de padres y madres.

### **OBJETIVO**

Promover la participación estructurada de padres y madres, posibilitando y fomentando su participación en el día a día de la Ikastola, para así fortalecer la comunidad educativa.

### **SELECCIÓN**

Se nombrarán dos representantes de cada aula, uno en sustitución del otro, solicitando la participación voluntaria para garantizar y fomentar la motivación, la practicidad y el grado de implicación. Si nadie se presenta voluntariamente, los padres y madres de clase decidirán (por sorteo o por votación) quiénes serán los representantes anuales.

### **FUNCIONES**

- Colaborar en la elaboración y difusión del carácter básico de Zurriola Ikastola (eusquera, cooperativismo, trabajo en grupo, participación).
- Colaborar en la difusión del propósito y los objetivos de Zurriola Ikastola.
- Impulsar la participación de los padres y madres en la vida de la Ikastola, tanto en las iniciativas que organiza Olarrizu (Tamborrada, Día de la Ikastola, Zurrimendi, puesto de Santo Tomás, escuelas de padres y madres) como en otras tantas (día de Nochebuena, Día del Euskera, Euskaraldia, Korrika, Carnaval y comparsas de Caldereros de los barrios).
- Impulsar diversas iniciativas entendiendo la ikastola como un amplio proyecto educativo (además de la docencia formal).
- Ser emisor de información en ambas direcciones:
  - Recoger los proyectos, propuestas e inquietudes de los padres y madres de clase y compartirlos en los encuentros.
  - Difundir a los padres y madres de clase la información extraordinaria que les han hecho llegar los miembros de los diferentes órganos de la Ikastola.
- Impulsar una comunicación eficaz entre las familias.
- Conocer las actividades que se realizan en el curso correspondiente (salidas, excursiones...) y, en su caso, conseguir acompañantes entre los padres y madres.

Todo ello estará orientado a desarrollar las características del Perfil de Salida del Alumnado de la Ikastola Zurriola.